

# KIRIVBATI KANALAK

Kirivbati enpresak kanal propioak izango ditu. Kanal horiek zuzenak izango dira.

- **KOMUNIKAZIO KANALAK**

Gure bezeroekin komunika gaitzen kanal desberdinak edukiko ditu gure enpresak.

Komunikazio kanal nagusia gure enpresa fisikoa izango da. Denda bat edukiko dugu non egun guztian zehar gutako bat egongo den gutxienez. Dendaren ordutegia honako hau izango da: 10:00-20:30.

Dendara hurbil daiteke edonor galderaren bat baldinba dauka eta beti langileak egongo dira edozer zalantza argitzeko eta egun guztian zehar ahalko dira bainerak begiratu.

Ondoren telefono bidez komunikatzeko aukera eskainiko dugu. Gure telefono zenbakia internetean egongo da eta telefono hori goizeko 10:00-etatik 20:30-ak arte egongo da funtzionatzen eta beti langile bat egongo da soilik telefonoari erantzuteko. Dei bidez egin ahal izango dira galderak edota kontsultak, baina beste modu batean ere komunikatzeko aukera emango dugu, Whatsapp bidez. Enpresak Whatsapp-a izango du bezeroekin elkar komunikatzeko eta ordutegi barnean zalantzak argitzeko.

- **Produktuen salmentarentzat bi kanal ezberdin edukiko ditugu, hauek denda fisikoa eta internet bidezkoak izango dira.**

- **DENDA FISIKOA**

Kirivbati enpresaren kanal nagusia denda fisikoa izango da. Gure dendan nahi den guztia egiteko aukera egongo da.

Bainerak ikusi nahi badituzu han esposizioan egongo dira erosleak ikus ditzazten. Dendan baineren adibideak egongo dira, baina basikoak izango dira. Bainera hoiek ez daukatu ia ezer edukiko ipinita eta haien ondoan gehitu ahalko zitzaizkion produktuak egongo lirateke. Behin zure gustoko bainera aukeratutakoak osagarriak aukeratu beharko dira. Osagarri guztien aukerak han egongo dira, baina logikoki ezin izango dira han bertan montatu muntaiak denbora eta baliabideak behar izango dituelako, beraz pantaila baten bidez egin ahal izango da zure gustoko baineraren muntaia egin ahal izateko, eta behin aukeratutakoan dendan egingo da eskaera. Eskaera dendan egiten denetik 10 lan egunetara iritsiko da bainera eroslearen etxera.

Produktua etxera heltzeak ez du inolako kosturik izango bezeroarentzat, enpresa arduratuko da kostu horretaz eta enpresa arduratuko da transporteaz eta guztiak.

- **INTERNET BIDEZ**

Kirivbati enpresak beste kanal bat izango du bezeroak bainerak eros ditzazten, kanal hori internet bidezko web orrialde bat izango da.

Web orrialdearen izena hau izango da: [www.Kirivbati/bainerak.eus](http://www.Kirivbati/bainerak.eus) , eta beti izango ditugu langilean web orrialdearen atzean dudarik baldinba dauka orrialdea erabiltzen ari den pertsona. Langile horrekin hitz egin daiteke mezu ala dei bidez. Kirivbati enpresako laguntza zerbitzuaren telefono zenbakia webgunearen azpialdean egongo da. Mezuak bidaltzeko Whatsapp bidezkoa izango dira elkarrizketak. Esan bezala, beti langile bat gutxienez laguntzeko, beraz mezuak ala deiak egitean segituan edukiko da erantzun bat.

Baineren erosketei dagokionez, denda fisikoaren antzerakoa izango da. Web orrian baineren adibideak egongo dira erosi nahi duenak erabaki dezan gehien gustuko duen prototipoa. Behin gustokoena aukeratu dueneanbi aukera izango ditu:

**1**→ Bainera datorren bezala utzi eta horrela erosi. Aukera hau erabakiz baineraren prezioa normala izango da, ez zaio ezer gehituko.

**2**→ Bainera beren gustura egokitzeko nahi dituen osagarriak gehitzeko aukera izango da.

Aukera hau nike webgunekoarenaren antzerakoa izango da. Nahi den baineran klikatutakoan horri gehitu ahal zaizkion osagarri guztiak aterako zaizkizu banan-bana.

Adibidez bainerari telebista bat, hozgailu bat eta mahai bat gehitu ahal bazaio lehenik telebistaren aukera guztiak aterako dira. Hori aukeratzeko telebistaren tamaina, kolorea edota marka aukeratzeko aukera edukiko da. Behin telebista nolakoa izango den aukeratutakoan “hurrengoa” aukerari sakatu behar izango zaio eta han hozgailuaren aukerak agertuko dira. Honen barruan ere tamaina, kolorea, marka, apal kopurua edota forma aukeratu ahal izango da. Honen edizioa amaitzerakoan berriz “hurrengoa” aukera sakatu eta mahaiaren ediziora abiatuko zara. Mahaiari dagokionez ere tamaina, forma, kolorea edo beste gauza batzuk aukeratu ahal izango dira. Osagarri guztiak aukeratzeaz amaitzean “amaitu” aukera sakatu egin beharko da eta han zuk editatutako baineraren irudiak agertuko zaizkizu. Amaitzerakoan zerbaiteko ados edo aldatzeko desira edukitzekotan atzera joan ahalko zinateke nahi duzun moduan ipintzeko.

Prezioei dagokionez editatzen zoazen bitartean gehigarri bakoitzaren aldamenen agertuko da produktu bakoitzarena indibidualki, eta ondoren bainera osoaren prezioa amaieran soilik agertuko da irudiekin batera.

Bestalde, baineraren bat gustuko izatekotan baina zeozer kendu nahi izango bazenu, hori egiteko aukera ere egongo litzateke. Hau da, bainera bat telebistarekin dator, baina erosleak ez du telebistarik nahi, orduan telebista kenduko litzaioke eta hortaz prezioa ere jetsiko zen.

Telebistak 300 euro balioko balu bere %80-a kenduko litzaioke baineraren prezioari. Ez zaio %100-a kenduko baineratik kentzeko lana ere ordaindu behar zela eta.